

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak dira enpresa batek bere negozio-ereduak funtzionatzeko garaian sendoki finkatuta eduki behar dituenak. Batez ere, estruktura guztia oso ongi antolatua edukitzea gero funtzionatzeko garaian arazorik gabe jardun dezan. Esan behar da, enpresak eskainiko duena zerbitzu bat den horretan ekoizpen funtzioa ez dela beharrezkoa izango, arazoak konpontzea eta plataforma edo sareko jarduerak dira garrantzitsuak enpresarentzat.

Lehenik eta behin, enpresa bat sortzeko ideia etorri zitzaigun horretan inguruan genuen arazo bat identifikatu genuen eta horren harira hasi ginen enpresa zerotik sortzen. Identifikatu genuen arazoa gure eskualdean dagoen herrien arteko loturak zeuden arazoak identifikatzea izan zen eta hortik hasi ginen bizikleta elektrikoek ideiarekin.

Jarraian, arlo honetako enpresak nola funtzionatzen duten ezagutu beharko genuke, guk enpresaren gestioa ahalik eta hoberen egiteko. Gainera, etengabeko formakuntza batean jardun beharko genuke bezeroei halik eta zerbitzu hobereana eskaintzeko, izan ere, inoiz ez daukazu ezagutza mailarik gorena eta zure buruari autokritika eginez, beti eduki behar da gauza berriak ikasteko grina. Horrela, berrikuntzak egingo genituzke eta bezeroen kritikak edo hobetzeko proposamenak jasotzen baditugu guk ere ahal den neurriak hobetu ahalko ditugu.

Teknologiaren inguruan mugitzen den gizarten honetan oso garrantzitsua da enpresak sareko jardueretan ere jardutea. Gure enpresa ez da atzean geldituko, teknologiaren munduaren barrenean egongo da. Lehenik, plataformaren gestioaren inguruan, web orri bat egingo dugu, enpresaren informazioa, gure kontaktua eta txartelen zerbitzua emateko eta sare sozial ezberdinetan kontuak irekiko ditugu.

Ondoren, web orriaren eta sare sozialen inguruan mantenu handia egingo dugu, web orriaren gelditzeak ekiditeko eta sare sozialetan gurekin kontaktuan jarri den jendeari erantzuteko.

Azkenik, internetek ikaragarriko audientzia duenez, gure enpresa eta plataforma hainbat moduetara promozionatuko genuke, lehenik, sare sozial guztietan promozionatuko genuke, bideo txiki eta argazkiekin. Azkenik, Oarsoaldeko udalen laguntzaz baliatuko ginake, beraiekin batera promozionatzeko.

Bukatzeko, egia da enpresaren jarduera guztia ezin dela gudan utzi zerotik hasten garen horretan laguntza beharko dugulako. Ez gara bizikleta batzuk ekoizten jarriko orduan saiatuko gara inguruko enpresa txikiren batekin elkarlanean funtzionatzen. Ciclos Iñaki izan daiteke enpresa txiki baten adibidea, enpresa mota hauekin lan egitea komeni zaigu.